

HAURREN BABESA ETA
GIZARTERATZEA

GIZARTE ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK

A U R K I B I D E A

1. S A R R E R A	2
1.1. GAIAREN DELIMITAZIOA	2
1.2. GAIAREN GARRANTZIA	2
1.3. PROBLEMATIKA	2
1.4. HIPOTESIA	3
2. D I A G N O S I A	3
2.1. ERREALITATEAREN EZAUGARRI KUANTITATIBOAK	3
2.1. ADINGABEEN BABESGABETASUNARI" LOTURIKO PROBLEMATIKA / ARAZO NAGUSIAK	9
3. L E G E D I A	9
3.1. NAZIOARTEKO LEGEAK	9
3.2. EUROPAKO LEGEAK	9
3.4. EAE-KO LEGEAK dena forma idatziagoa	12
4. P L A N A K / P R O G R A M A K / E G I T A S M O A K	14
4.1. PROGRAMAK	14
EGOITZA HARRERA	14
FAMILIA HARRERA	15
ADOPZIOA	16
1. TREBATU PROGRAMA	17
2. BIDERATU PROGRAMA	18
3. GARATU PROGRAMA	18
4. SAFECARE PROGRAMA	19
5. INCREDIBLE YEARS PROGRAMA	19
5. E R A K U N D E A K	20
6. G I Z A R T E L A N G I L E A R E N L A N A	20
7. E R A B I L T Z A I L E A R E N P R O F I L A	21
8. E B A L U A K E T A	22
9. G O M E N D I O A K	23
10. O N D O R I O A K	24
11. B I B L I O G R A F I A	26
12. E R A N S K I N A K	27

1. S A R R E R A

1.1. GAIAREN DELIMITAZIOA

Lan honen bitartez, gaur egun Gipuzkoako Gizarte Zerbitzu Espezializatuak zer nolako esku hartzea egiten duen aztertuko dugu. Gizarte Politika departamendu barruan, Haurren Babesa eta Gizarteratzea izan da aukeratutako saila. Hemen, haur, nerabe eta familiei eskaintzen zaien esku hartze zerbitzuak aztertuko ditugu, baita gizarte bazterketa jasaten duten haur eta nerabeen problematika ezberdinak analizatu eta horiei aurre egiteko hainbat zerbitzu eta prestazio ikusiko ditugu.

Udalak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eskaintzen ditu, hala nola, egoitza harrera, familia harrera, adopzioa, gizarte-eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua eta azkenik, adingabe atzerritarren aldi baterako lekualdaketa programak. Behar horiei aurre egiteko zailtasunak baldin badaude, diputaziora bideratzen dituzte. Kasu honetan, Gizarte Politikako departamentura non hainbat zerbitzu eta prestazioetarako sarbidea ematen den.

1.2. GAIAREN GARRANTZIA

Haurrek eta nerabeek hainbat egoera bizitzen dituzte egunerokotasunean, gain-pisua, bazterkeria, etxeko biolentzia, eskola-jazarpena, ikasketa mailan desoreka, kultura talkak eta gabezia...egoera guzti hauek beraien etorkizun baldintzatu dezakete. Gertaera hauek ez gertatzeko, komeni litzake prebentzio eta esku hartze egoki bat egitea eta horretarako adingabearen interesa kontutan hartzea. Sail honek garrantzia handia ematen dio babesik gabeko egoera larrian dauden adin txikikoen ongizatea bermatzeari. Hori bete ezean, beharrezkoak diren neurriak hartzen dituzte Gipuzkoako Foru aldundiak.

1.3. PROBLEMATIKA

Gipuzkoan, haur eta nerabe ugari daude gizarteratze egoeran. Egoera honetan dauden haur eta nerabeek laguntza behar dute zenbait gaien inguruan, eta ez dituzte behar bezain beste zerbitzu.

1.4. HIPOTESIA

Hipotesiari dagokionez, 5 azpi puntutan banatu dut, bakarrera mugatzea, motz eta osatu gabe geratzen zelakoan. Ondorengoak dira, haurren babesaren eta gizarteratzearen arloan aurreratutako hipotesiak:

1. Babesgabeziari dauden haurren egoerak gainditzeko modu eraginkor eta egoki batean esku-hartzeko arazoak daude.
2. Honelako egoerak saihestera bidean adingabearen interesak kontuan hartzerakoan, autonomia gehiegi ematen zaie haur zein nerabeei, eta horregatik, ez da ongi aplikatzen erabili beharreko metodologia zurruna.
3. Ikasketa prozesuan zehar gehiegizko presioaren eraginez, bazterkeria jasaten duten haur zein nerabe gehienek ez dituzte ikasketa horiek bukatuak.
4. Haurrak direnean etxean jasaten duten biolentziaren eraginez, gero haien egunerokotasunean erreproduzitzen dituzte jarrera biolentoak, eta udalak batzuetan ez die laguntzarik ematen horrelako egoeren aurrean.
5. Udalekoek batzuetan haur eta nerabe horiek kalean utzi behar dituzte, lo egiteko lekuak edukitzeko lista bat dutelako.

1. 5. METODOLOGIA

Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza Nagusia aztertzei, informazio iturri desberdinak erabili ditugu. Alde batetik, bigarren mailako iturrien bitartez, lan dokumentala egin dugu: datuen, grafikoaren eta taulen bitartez; eta hauek, ikerketarako baliatu ditugu. Bestalde, metodologia kualitatiboaren baitan, elkarrizketak erabiliko ditugu. Lan dokumentalean, ikerketa, dokumentu eta artikulua erabili ditugu gure ikerketan sakontzeko; elkarrizketaren kasuan berriz, gaiaren inguruko ezagutza sakonagoa eta orokorragoa duen profesionalekin hitz egin dugu.


2. D I A G N O S I A

2.1. ERREALITATEAREN EZAUGARRI KUANTITATIBOAK

Atal honetan, babesik gabe dauden haurren errealitatearen inguruko datuak bilduko ditugu. Horretarako, zenbait grafiko eta taula erabiliko ditugu, urteetan zehar eduki duen garapena ikustera begira.

1. Grafikoa

Adierazlearen eboluzioa: 18 urte baino gutxiagoko pertsonen kopurua Gipuzkoan




Iturria: *Gipuzkoako Gizarte Behatokia*

Lehenengo grafiko honetan, 2011tik 2018ra bitartean 18 urte baino gutxiagoko pertsonen kopurua aztertzen da Gipuzkoa mailan. Nahiz eta urte hauetan zehar eman den aldaketa ez izan oso agerikoa, gizonen zein emakumeen kopurua handitzen joan da modu gradual batean.

Bi generoen zifra txikienari erreparatu ezker, jaso den kopuru txikiena 2011. urtean izan zen, 61.000ko zifrarekin gizonezkoen aldetik eta 57.680ko zifrarekin emakumeen aldetik. 2018.urteko datuak dira gaur egunetik hurbilen duguna eta azken honek azaltzen ditu datu altuenak, emakumeen kasuan 60.977-koa izan zen lehengo urtean eta gizonezkoena berriz 64.425-koa. Beraz, esan daiteke, azken urteotan 18 urte baino gutxiago dituzten gizonezkoen kopurua emakumeen kopuruarekin aldatu ezker handiagoa izan dela.

Guztizko datuak aztertze aldera, esan daiteke, urteak aurrera joan ahala datuak handitzen joan direla. 2011. urtean 118.680ko pertsona kopurua zegoen Gipuzkoa mailan 18 urte baino gutxiago zituena, 2018. urtean berriz, 125.402 pertsona. Beraz, eta lehen esan bezala, ikusi daiteke urteak aurrera joan ahala, nahiz eta aldaketak ez izan guztiz agerikoak, kopurua bere horretan handitzen joan dela.

2. Grafikoa




Iturria: *Gipuzkoako Gizarte Behatokia*

Bigarren grafiko honetan zera aztertu dezakegu: 0 eta 17 urte bitarteko jasotako babesgabetasun-jakinazpenak. 2011. urtean, 1000 pertsonen araberako tasa erabiliaz.

2011. urtean, 6,72 jakinarazpen eman zirelarik, zifra hau gradualki hazten joan dela ikus dezakegu, ondorengo urteetan 6,73, 6,82, 6,89 eta 6,92 jakinarazpen egotera iritsi zirelarik hurrenez hurren, 2015 urtera arte. Azpimarragarria litzateke 2016. urtean ematen zen gorakada, 8,12 izatera helduz, eta azken bi urteetan ere, 2017-2018, aurreko urteetako baino hazkunde nabariagoa izanez, 8,92 eta 9,53 jakinarazpenekin.

3. Grafikoa

Adierazlearen eboluzioa: Babesgabetasun egoeran dauden adinez txikiko pertsonentzako egoitza-zerbitzuetako plaza foralen kopurua Gipuzkoan




Iturria: *Gipuzkoako Gizarte Behatokia*

Gipuzkoa mailan dauden adin txikiko pertsonentzako egoitza-zerbitzuetako plaza foralen kopurua adierazten digu grafiko honek. Azaltzen diren datuak guztizkoak dira ez da desberdintasunik egiten emakume eta gizonen artean. 2011 eta 2018. urteen bitartekoak dira kontuan hartzen diren datuak.

2011. urtea izango da plaza kopuru gehien eskainiko diren urtea 385 zehazki. 2012. urtean jaitziera garrantzitsu bat eman zen 81 plaza erori baitziren. Gerora, gradualki handitzen joan da plaza kopurua 2016-an 329 plaza lortu ziren arte. Geroztik lehengo urtera arte, datuak hiru urte hauetan gradualki handitzen joan dira nahiz eta aldaketak ez izan oso handiak. 2018. urtean, 348 plaza egotea lortu baitzen.

4. Grafikoa

Adierazlearen eboluzioa: Egoitza-abegian dauden adinez txikiko pertsonen kopurua Gipuzkoan



Iturria: *Gipuzkoako Gizarte Behatokia*


Gipuzkoan egoitza-abegian dauden adin txikiko pertsonen kopurua adierazten du hirugarren grafikonek, 2011 urtetik 2018 urtera arte. Erreparatu daitekeen bezala, orokorrean kopuru honek hazkunde nahiko graduala izan du urteetan zehar, batez ere, azkenengo urteari erreparatu ezker aldaketa nabaria suma dezakegu.

2011. urtean 203 adin txikiko izan ziren egoitza-abegian, horietatik 130 gizonak eta 73 emakumeak. Hurrengo urtean 156 izan ziren gizonetzkoak eta 88 emakumezkoak, guztira 244 izatera iritsiz; 2013an berriro haziko da zenbakia, 276ko totalarekin, 170 gizon eta 106 emakume izanik. 2014an emakumeen zifrak berdin jarraituko du, 106 jakinarazpenekin, eta gizonetzkoetan 178rekin, 284eko osotasuna eratuz. 2015ean berriz, gizonetzko kopuruak hazten jarraituko du 184ekin, baina gutxiagotu egingo da emakumeena 93 izatera jaitsiz, kopuru totalarekin batera: 277 pertsona izan ziren egoitza-abegian. 2016an alderantzizko prozesua emango da; gizonetzkoetan 176ra jaitsiko da kopurua eta emakumeetan 112ra igo, 288 jakinarazpenekin guztira. 2017. urtean berriro igoko da gizonetzkoen zifra eta berriz jaitsi emakumeen kopurua eta zifra totala: 182 gizon, 101 emakume eta guztirako 283ekin. Azken urtean berriz, zifra totalak aldaketa gradual nabaria jasan duenez, emakume zein gizonetzkoen kopuruak ere gora egin du. 2018. urteko datuei erreparatu, ikusi dezakegu, 276 gizon eta

107 emakume zeudela egoitza-abegian, zifra totala 383koa izanik, hau da, 2017.urtean baina 100 pertsona gehiago zeuden egoitza-abegian.

5. Grafikoa

Adierazlearen eboluzioa: Familia-abegian dauden adinez txikiko pertsonen kopurua Gipuzkoan



Adierazleak: A49 Familia-abegian dauden adinez txikiko pertsonen kopurua

Datuaren maiztasuna: Urterikoa Sei hilabete

Urtea: Gizona Emakumeak Guztira

Maiztasuna: Guztira

Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia

Grafiko honek Gipuzkoan familia-abegian dauden adin txikiko pertsonen kopurua adierazten du, 2011. urtetik 2018. urtera. 2011 urtetik hasita, 311 jakinarazpen jasotzen dira, eta nahiko gradualki kopurua igo 2016 urtera arte. 2012 urtean 315 pertsona dira familia abegian; 2013an 328; 2014an 348 eta hazkuntza handiena jasotzen du 2015. urtean 377 jakinarazpenekin, 2016 urtean 367ra jaisteko eta 2017an zifra bera mantenduz. 2018an aldiz, zifra zertxobait jaitsi zen, zehazki 361era.

2.1. ADINGABEEN BABESGABETASUNARI" LOTURIKO PROBLEMATIKA / ARAZO NAGUSIAK

3. L E G E D I A

3.1. NAZIOARTEKO LEGEAK

Nazioarte mailako legeen bitartez, nazioarteko hitzarmenak arautzen dira eta ondorioz estatuak desberdinak, lege hauek errespetatuz zehaztu behar dituzte haien lege propioak. Nazioarteko legearen barnean (3/9/12/13 artikulua) topatu egin genezake, hau da, Convención sobre los derechos del niño, legea.

1. Convención sobre los Derechos del Niño · UNICEF Comité Español: (3/9/12/13 artikulua).

Lege honek, umeen oinarriko eskubideak aldarrikatzen ditu, besteak beste: Bereizketarik ez egitea iritzi politiko edo beste izaera bateko, arraza arrazoiengatik, koloreagatik, sexuagatik, hizkuntzagatik edo erlijioagatik. Gainera haurrak familian hezi beharko du, bakean, duintasuneko, tolerantziako, berdintasuneko...oinarritutako harremanetan heziko da, betiere tradizio eta ohiturei erreparatuta. osat beharra

3.2. EUROPAKO LEGEAK

Europako ezartzen diren legeak, Europako batasuna osatzen duten herrialde guztiek bete behar dituzte. Lege hauek Europako batasuneko herrialde guztiek bete behar dituzte, gure gaiarekin lotuta, selekzio bat egin dugu, garrantzitsuenak aukeratuz.

1. Haurren eskubideen Europako gutuna:

Europako Parlamentuak Erabaki honetan aitortzen du, haurtzaroa, pertsona baten bizitzan, etapa bezala duen garrantzia. Umeen beharrei asetzeko familiaren paperak eta horrelako beharrek umeen eskubide sail bat sortzen dute. Ondorioz, familiarentzat, Estatuarentzat eta gizartearentzat bete behar bat da.

Haurren Eskubideen Konbentziotik Abiatuz, planteatzen du Europako haurtzaroaren arira, arazo espezifiko batzuk daudela kontuan hartu behar direnak, horien artean, integrazio komunitarioa. Horregatik, beharrezkoa izango litzateke haurtzaroaren eskubideak bermatuko dituen berezko tresna

juridikoak izatea. Halaber, nabarmentzen da haurren eskubideetako defendatzailearen irudiaren paperaren garrantzia, bai Estatu kideei, zein komunitate mailan. Horregatik, Komisioak adierazten du, haurren eskubideen Europako gutuna onartzeko beharra dagoen, non 44 printzipiok osatuko duten. Lege honetan 44 printzipio horien azalpena agertuko da.

2. Haurren Eskubideen aldeko Europa Batesuneko Agenda bat: Brusela,15.2.2001 COM(2011) 60 azkenekoa:

Europako haurren eskubideen aldeko agendan ondorengo printzipio orokorrak lantzen dira: Europako eskubideen barruan, haurrenak ere bete egin beharko dira, interesatuekin kooperazioan jardun beharko da, justizia eskuragarria izango da haurrentzat, haurren zaurgarritasuna kontuan hartuko da, sensibilizazioa eta parte hartzea sustatuko dira.

3. Europar gutun soziala (24/32/33.art.):

Europako herriek, beren artean gero eta batasun estuagoa sortuz, etorkizun baketsua nahi dute izan elkarrekin, balio erkideetan oinarrituta. Horretarako, beharrezkoa da oinarrizko eskubideen babesa indartzea, gizartearen bilakaera, garapen soziala eta zientzia-teknologietako aurrerapenak aintzakotzat hartuta, eta Gutun batean jasota uztea. Gure gaian kokatuz, gutun sozial honetan gure gaiarekin zer ikusia duten artikulua aipatuko ditugu: 24.artikuluak, haurren eskubideak zehazten dira, 32.artikuluak berriz, haurren lanaren gaineko debekua, eta gazteen babesa lanean, eta azkenik, 33.artikuluak, familia-bizitza eta lanbide-bizitza.

3.3. ESPAINIAKO LEGEAK

Jarraian, gaiari lotutako Espainiako haur eta nerabeen inguruko lege garrantzitsuenak azalduko ditugu:

1. Espainiako konstituzioa/Familia eta haurren babesa/39.artikulu

Espainiako konstituzioko artikulua honetan botere publikoak adingabeekiko edukiko duen betebeharra azaltzen da, baita adingabeen gurasoen betebeharrak ere.

- 39. artikulua:

Botere publikoek familiaren babespen sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzen dute. Botere publikoek, era berean, seme-alaben babespen osoa ziurtatzen dute, hauek legearen aurrean berdinak izanik jatorria alde batetara utziz, eta hauen amena berauon egoera zibila edonolakoa izanik. Legeak posibilitatuko du aitatasunaren ikerketa. Gurasoek era guztietako laguntza eskaini behar diete seme alabei nahiz ezkontzakoak nahiz ezkontzatik kanpokoak izan, haien adingabezeroan eta beste kasuetan legalki eratoritzen denean. Umeez nazio arteko akordioetan beraien eskubideen alde beilatzen den aldeaz aurretik ikusitako babesaz gozatuko dute.

2. Lege organikoa 1/1996, urtarrilaren 15a, adingabeen babes juridikoa, kode zibileko eta fiskaltza zibileko legearen aldaketa partziala:

Ondorengo legean, babes juridiko nori eta nola aplikatzen zaien azaltzen du, besteak beste hauen interes nagusia azalduz.

1.artikuluak, legea, 18 urte baino gutxiago dituzten adingabeei aplikatu zaiela, aplikatu aurretik adin nagusitasunera heltzen ez diren bitartean zehazten da. 2. artikulua, adingabearen interes nagusia defendatzen da. Gainera, ondorengo artikuluetan, ohorea eta pribatutasuna (4.artikulua), parte hartze soziala (7.artikulua), adingabeen betebeharrak (9.artikulua) eta arrisku egoerako esku hartzeak (17.artikuluak) arautzen dira.

3. Lege organikoa 1/2004 abenduren 28, genero indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriak:

Lege organiko honen helburua (1.Artikulua) adingabeek genero indarkeriaren aurrean izan ditzaketen errealitateen aurrean babestea da. Horretarako adingabeak zuzenki jasan ahalko duten genero biolentzia zein zeharka jasan dezaketenaren ondorioak ezeztatzea izango da.

2. artikulua, gidaritzarako oinarriak ezartzen dira, 3. artikulua sentsibilizazio planak zehazten dira, 5. artikulua eskolarizazioa bermatzen da genero indarkeriaren aurrean, 6. artikulua berdintasunaren sustatzen da.

4. Legea 54/2007, abenduaren 28, adopzio internazionala:

Ondorengo legeak, adopzioak internazionalki burutzerakoan bete beharreko baldintza eta betebeharrak azaltzen ditu. Bi parteen arteko akordioak mugatu eta zehaztuko ditu, adoptatuko dutenen ontasuna neurtuz besteak beste. Hau adingabearen eskubideak bermatzen direla zihurtatzeko egingo da.

5. Dekretu erreala, 1889ko uztailaren 24an argitaratua kode zibilaren publikotasuna adieraziz:

Dekretu honen bidez legeen publikotasuna adierazten da, eta hauek ez jakiteak ekarri ditzakeen ondorioak. Ondorioz eta gurera ekarriz adingabeen kasuan administrazioak bete beharreko puntua izango da hauen erantzukizun nagusia gauzatzea, baina tutore legalena alde aurretik legedian esana jakitea.

3.4. EAE-KO LEGEAK dena forma idatziagoa

Jarraian, Euskal autonomi erkidegoan adingabeei loturiko lege garrantzitsuenak azalduko ditugu:

1. 3/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko:

Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Lege honek lehenbiziko aldiz ezartzen du gai honi buruz erreferentzia-esparru orokor bat Euskal Autonomia Erkidegoan. Lege honetan xede hirukoitza dago, hala nola, haur eta nerabeei bermatzea zuzenbide-antolamenduan ezagutzen zaizkien eskubideak erabili ahal izango dituztela, haurren eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko jarduerak eta azkenik, babesgabezia-egoeran edo arrisku-egoeran dauden haur eta nerabeak babesteko eginkizunaren jardute printzipioak zehaztea.

2. 12/2008 LEGEA, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa:

Lege honen bitartez, Gizarte Zerbitzuak arautzen dira. Honela departamentu bakoitzak zein egin behar duen, ze modutan jardungo duen eta zein baliabide eskainiko diren ezarriz. Lege honen barruan adingabeak babesteko eskumena zein den azaltzen du hurrengo artikuluan:

41. artikuluan, Foru-aldundiak: Arrisku larrian edo babesik gabe dauden adingabeak babesteko dauzkaten eskumenak. Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean daude zehazturik zein diren eskumen horiek.

3. Abenduaren 28ko 54/2007 Legeak:

Ondorengo legean adopzioen inguruko zenbait printzipio eta oinarri azaltzen dira.

Lege honetan gure gaiari erreferentzia egiten dion artikulua, hamabigarrena da. Bertan, egokitasuna balioesteko irizpideak zehazten dira, adopzioetan. Lehenengo atalean, 11.artikuluan ezartzen diren baldintzak balioesteko irizpideak zehaztuz eta bigarren atalean, balioesteko prozesuan, adoptatzeko eskaintza egiten duen pertsonak zirkunstantziak betetzen dituen edo ez zehazten da.

4. 131/2008 DEKRETUA, uztailaren 8koa, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautuko dituen dekretua:

131/2008 DEKRETUA, uztailaren 8koa, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautuko dituen dekretua. Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak lehenengo aldiz ezarri zuen gai horri buruz erreferentzia-esparru orokor bat Euskal Autonomia Erkidegoan. Ordura arte, Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeek, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eremuari dagokionez, beren eskumeneko berariazko alderdiak arautzera (hezkuntza eta osasuna, esaterako) mugatu zuten beren lege-jarduera, eta bereziki kaltebera den kolektiboaren, hau da, haurren eta nerabeen eskubideak sustatzeko eta babesteko gainerako funtsezko eremuek ez zuten berariazko araurik.

Zehazki, legezko aginduak nabarmentzen zuen baliabide motak hainbat irizpideren arabera sailkatu behar direla. Irizpide horiek honako hauek dira: zaindutako haurrek eta nerabeek dituzten premiak, zaintzeko ereduak edo egituren tamaina, hezkuntza-arloko baliabideei, baliabide terapeutikoei edo segurtasun-arloko baliabideei dagokienez, zentro horiek eduki behar izango dituzten ezaugarrien arauak barne, betiere zentro horiek arrisku nabaria edo adingabeek beren buruari edo hirugarrenei kalte larriak eragin diezazkioketen portaera disruptiboak dituzten adingabeak zaintzen badituzte; kasu horietan aurreikusten da zentro horiek menpeko diren foru-administrazioek nahiz adingabeen fiskaltzek kontrol zorrotzak gauzatu behar izango dituztela.

4. P L A N A K / P R O G R A M A K / E G I T A S M O A K

4.1. PROGRAMAK

• EGOITZA HARRERA

Laguntza eta gizarte-hezkuntzako arreta eskaintzen ditu, eta, aldi berean, erreferentzia-ingurune egonkorra eta beharrezkoa den babes ematen duen, babesgabetasun-egoeran dauden adingabeak familiatik banatzeko neurria erabaki eta gero komunitateko baliabideetan txertatzeko. Beren etxeetan jarraitzeko aukerarik ez duten adingabekoei zuzendutako babes-neurri bat da, beraz, eta horri esker beren premia eta beharrianak gogobeteko moduan aseko dituen egoitza eta bizikidetzarako leku bat eskaintzen zaie adingabekoei.

Neurri hori funtsezko bi ezaugarritan dago oinarritua. Alde batetik, bere izaera instrumentala; helburu egonkor eta normalizatua begiesten duen Kasu Plan baten zerbitzura baitago eta bestetik tenporalitatea.

Horrela, bada, egoitza-harrerako baliabideak, bere modalitate desberdinetan, gizarte-baliabide egokia gertatzen dira familiaren ordezkari bizikidetzaren baten premian dauden adingabekoentzat.

Gipuzkoako Egoitza Harrerako Sarea 2008ko uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuak zehaztutako programaren inguruan egituratzen da, Gizarte babesik gabe dauden haurrentzako eta nerabeentzako egoitza harreraren baliabideak arautzen dituenak.

- Larrialdiko harrera-programa
- Oinarrizko programa orokorra
- Jokabide-arazoak dituzten nerabeei arreta emateko programa espezializatua
- Jokabide-arazo larriak dituzten nerabeei laguntza intentsiboa emateko programa espezializatua

Horretaz gain, Sareak neurri judizialen bat betetzen ari diren adingabeei zuzendutako zentro espezializatu bat du, eta hainbat plaza desgaitasunean espezializatutako zenbait baliabidetan (Uliazpi, Aita Menni eta ASPACE).

Zentroetan programa hauek garatzen dira, irizpide batzuen arabera, hala nola, hartutakoen beharrak, adina, esku-hartzearen xedea... Zentroetan ere hainbat programa osagarri garatzen dira, familian esku hartzeko programez eta programa psikoterapeutikoez gain:

- Eskutik Programa. Egoitza harreran dauden haurrentzako laguntzako programa, Gurutze Gorriak kudeatuta, boluntarioen bitartez gauzatzen dena. Era askotako laguntza eman daiteke, jardueretara joateko laguntza, eskola-laguntza, etab..
- Izeba Programa. Helburu nagusia da babesgabezia egoeran dauden haurrei eta nerabeei, hobeto gizarteratzen laguntzea, bere ingurunean erreferente izango diren familia sare bat (harrerako osaba-izebak) sortuz, egoitza harrerako zentroek egiten duten lanaren osagarri. Baketik Fundazioak kudeatzen du.
- Cronos Programa. Babeseko zentroetan bizi diren 12tik gorako haur eta nerabeentzat gizarte-hezkuntzarako esku hartze programa bat da, egoitza harrerako zentroetan egiten den heziketako esku hartzearen osagarri dena. Besteak beste, ondorengo zerbitzuak eskaintzen ditu: alfabetatze ikastaroak, gaztelania indartzeko eta eskola-laguntzako ikastaroak, tailerrak, kirola, ingurunean egiten diren aisi hezitzaileko jarduerak, komunitateko baliabideen erabilera. Gurutze Gorriak kudeatzen du hitzarmen bidez.
- Anothe Programa. Animaliez eta naturaz lagundutako terapiako esku hartze programa, arazo psikologikoak edo portaerakoak dituzten eta egoitza harreran dauden 12 urtetik gorako neska-mutilentzat.

● **FAMILIA HARRERA**

Hemen hainbat arrazoi tarteko, Gipuzkoan hainbat ume daude beren familiekin bizi ezin direnak eta, horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapean daudenak.

0 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeak dira, eta askok familia bat behar dute, beraien zaintza eta heziketaren kargu egingo dena; baina familia horretako beste kide bat izateaz gain, jatorrizko familiarekin harremanetan jarraitzeko aukera ere nahi dute, nahiz eta beraiekin ez bizi.

Gure inguruan haurtzaro arrunt batez gozatzen ari ez diren haur eta nerabeak daude. Uste baino gehiago dira, eta behar baino gehiago sufritu dute. Aldaketa handiak. Bakardadea. Beldurra. Ezjakintasuna. Hainbat arrazoiengatik euren familiekin bizi ezin diren haur eta nerabeak dira.

Hainbat Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako harrera zentroetan bizi dira. Arreta ezin hobea jasotzen dute beraietaz arduratzen diren profesionalengandik, baina ezin da etxeko berotasuna ordezkatu. 3, 8 edota 13 urte dituzunean, bizi beharko zinatekeen leku bakarra etxea izan beharko lukeelako. Familian. Gainerako haurren antzera.

Familia urrun duten haur eta nerabeek gabezia ugari dituzte, baina beharren artean bat nagusitzen da: maitasuna. Ez da nahikoa gauero konpainia egiten dieten peluxe edota panpinak besarkatzearekin. Hezur-haragizko besarkadak behar dituzte. Zure beharra daukate.

● **ADOPZIOA**

Zerbitzu hau babes neurri bat da, beren familietan jarraitu ezin eta famili ingurune iraunkorra behar duten haurrentzat.

Adopzioak adingabearen eta familia biologikoaren arteko lege loturak hausten ditu eta familia biologikoak dituen eskubide eta betebeharretan oinarritutako harremana sortzen du haurraren eta familia adoptatzailearen artean.

Zera eska daiteke:

- Atzerriko herrialde batetako ume bat adoptzea (nazioarteko adopzioa)
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapean dagoen ume bat adoptatzea.

Adopzioaren bitartez guraso izan nahi duten pertsonak edo bikoteek, ezkontide izan edo izatezko bikote izan.

Horretarako, honako hauek egin behar dituzte:

- Espainiako eta Autonomia Erkidegoko legeriak ezartzen dituen baldintzak bete. Nazioarteko adopzio bat egin nahi bada, atzerriko herrialdeak ezarritako baldintzak ere bete beharko dituzte.
- Adingabe bat adoptatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren egokitasun ziurtagiria lortu.

● **GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOZIALEAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUA**

Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuek helburu bikoitza dute. Alde batetik, seme-alabak hezteko orduan zailtasun handiak dituzten eta babesgabetasun-arrisku handiko egoeran dauden familiei zuzenduta daude. Familia horiek krisian daude, eta familia bana dadin saihesteko eta, aldi berean, haurrak ahal den heinean famili ingurunean mantentzeko ahaleginak egiten dira, gurasoen gaitasuna hobetzera edo seme-alaba adingabeak zaintzeko eginkizunetan

laguntzera bideratuta dauden ekintzen bitartez (hezkuntza-orientazioa, arreta psikoterapeutikoa, gizarte-laguntza...). Beraz, familia banatzeko arriskua saihesteko helburua dute.

Horretaz gain, kasu hauetan ere erabiltzen dira: familiarik banatzeko legezko neurria hartuta, familiarik eta harreran dauden adingabeekin lana egitea egokitzat jotzen denean, egindako kaltea konpondu eta familiaren etxera hezkuntza- eta gizartekotze-baldintza egokietan itzuli ahal izateko. Hala bada, familiak berreskuratzearen aldeko apustu bat da, familiarik banatzeko neurriak itzulgarriak direla eta zailtasunak gainditzeko familiarik lana egin behar dela ulertuta.

Esku hartzeko programa hauek daude abian:

- **Trebatu.** Tratu txarren arazoak eta/edo haur eta nerabeen abandonu-arazoak dituzten familiarik gizarte-hezkuntzan esku hartzeko programa.
- **Bideratu.** Tratu txarrak eta/edo sexu-abusua gertatzen diren egoeretan esku-hartze terapeutikoko programa.
- **Garatu.** Laguntza psikologikoko programa.
- **Safecare.** Gurasoen trebetasunak irakasteko programa, bereziki arduragabekeria saihesteko.
- **Incredible Years.** Esku-hartze goiztiarreko programa, jokabide-arazoak saihesteko.

Familiarik esku hartzea era askotan burutu daiteke, beti ere familia bakoitzari dagokiona eta bere beharretara egokitutako tratamendurik hoberena jasotzen duela bermatuta. Esku hartze forma desberdin hauek esku hartzerako aukeratutako helburuaren arabera definitzen dira. Helburutzat hartzen dugu esku hartzearekin burutu nahi dena, hau da, lortu beharrekoa, alde aurretik Kasu Planean definitu delarik. Horregatik, edozein famili esku hartzearen hasierarako eta jarraipenerako metodologia bat ezarrita badago ere, helburu desberdinek, jasotako tratu txarraren motarekin batera, kasuetako lan metodologian, helmugetan, eta abarretan diferentziak baldintzatzen dituzte.

1. TREBATU PROGRAMA

Tratu txarren arazoak eta/edo familia barruko haur-abandonuaren arazoak dituzten familiarik eta familiarik banatu diren eta famili harreran edo egoitza-harreran dauden hurrekin gizarte-hezkuntzan esku hartzeko programa bat da. Bere zereginak dira gurasoen trebetasunak ebaluatzea, berreskuragarritasun pronostikoa egitea, gizarte eta hezkuntza alorreko esku hartze

plan bat prestatzea, eta guraso gaitasunak garatzeko beharrezkoak diren baliabideak abian jartzea edota gurasoen osagarri izatea seme-alaben beharrak behar bezala asetzeko.

Agintzari kooperatibak kudeatzen du kontratu bidez. Aldi bereko kasuen kopurua 300 familiakoa izan daiteke.

2. BIDERATU PROGRAMA

Esku hartze psikosozialeko programa. Bere zereginak dira:

- Esku hartze terapeutikoa haurren kontrako sexu abusuko egoeran dauden familiekin eta familia horietako haur eta nerabeekin, esku hartzeak horrela eskatzen duenean. Tipologia horretan sartzen da aldez aurretik ikerketa eta ebaluazioa egitea haurren eta nerabeen kontrako sexu abusua gertatzen ari dela jakinarazi den egoeretan. Era berean, adingabeen artean sexu jokabide desagokiak detektatzen direnean, egoera horiek ebaluatzea eta artatzea ere sartzen da.
- Familiekin eta familia horietako haur eta nerabeekin esku hartze terapeutikoa egitea, nerabezaroan edo nerabezaroaurrean sortutako elkarbizitza arazo larriak dituztenean. Hor sartzen dira seme-alaben gurasoekiko indarkeria kasuak ere.
- Familiekin eta familia horietako haur eta nerabeekin esku hartze terapeutikoa egitea, guraso eta seme-alaben arteko lotura prozesuaren nahasmenduaren ondorioz eta guraso eta seme-alaben arteko interakzio eredu desagokiak aplikatzearen ondorioz, tratu txar fisiko nahiz emozionaleko dinamikak gertatzen direnean.

Aldi bereko 70 plaza dituzte guztira eta Zerbitzua Izan, Intervención Familiar y Comunitaria, S.L. enpresak ematen du.

3. GARATU PROGRAMA

Emango den zerbitzua honetan datza: gizarte eta familia babesgabezia larria detektatu zaien eta harremanak ezartzeko nahiz egokitzapen pertsonal eta sozialeko arazoak dituzten adingabeei zuzendutako diagnostikoa eta tratamendu psikoterapeutikoa. Adingabe horien senitartekoei ere, behar izanez gero, laguntza eman ahal izango zaie babes ekintzaren helburuak lortze aldera. Bere helburua da haurrari eta honen familiari laguntzea egokitzapen pertsonala eta gizarteratze positiboak lortzeko

bidea emango dioten jarrerak eta jokabideak garatzen, honakoen bidez: beren historia eta egungo egoera ulertuz eta banakako edota familiako jarraibide disfuntzionalak aldatuz.

Zerbitzu hau familian esku hartzeko beste programa batzuetan ere parte hartzen duten adingabeei eskaintzen zaie, eta baita egoitza harreran edo famili harreran daudenei ere. Zerbitzua emateko, hainbat kabinete daude, hitzartutako Psikologoek Elkargo Ofizialaren koordinazioarekin.

4. SAFECARE PROGRAMA

Safecare ebidentzian oinarritutako programa bat da, hezkuntza izaera du, etxean kokatzen da, eta haur bat edo batzuk babesgabetasun-egoeran eduki ditzaketen familiei zuzendua dago.

Programa hori burutzeko, familiaren hezitzaileak ereduazko hezkuntza-saioak ematen ditu etxean, non, gurasoekin nahiz seme-alabekin hazierako zenbait trebetasun lantzen dituen. Familiaren hezitzailea eskuliburu egituratu batez baliatzen da, hiru modulutan banatuta, eta horiek osorik irakasten dira programan zehar: osasunaren zaintzaren modulua, etxeko segurtasunaren modulua, eta gurasoen eta haurren arteko elkarrekintzaren modulua.

Programan parte hartuko duten familiek ondorengo irizpideak bete behar dituzte:

- Haurren adina 0tik 5 urtera artekoa.
- Haurrarekin fisikoki edota emozionalki arduragabekeriak jokatzeko edo jokatzeko arriskua izatea.
- Haurra familiaren etxean bizitzea eta esku-hartzearen helburua familiari eustea izatea.
- Familiak bere borondatez esku-hartzea onartzea.

Programa abian jartzen ari da Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Donostiako Udalaren lankidetzaren hitzarmen baten esparruan.

5. INCREDIBLE YEARS PROGRAMA

Incredible Years ebidentzian oinarritutako esku-hartze goiztiarreko programa bat da, jokabide-arazoei aurre hartzeko eta gaitasun soziala eta emozionala sustatzeko. Taldeko esku-hartzean oinarritutako

programa bat da, batez ere jokabide arazotsuak dituzten haurren familiei zuzendua, bai eta arazo horiei aurre egiteko zailtasunak dituzten gurasoei ere.

Programak arreta jartzen du aldi berean gurasoen trebetasunen irakaspenean eta haurrei eskaintzen zaien taldeko arreta terapeutikoan. Hauek dira programaren helburu nagusiak:

- Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak indartzea
- Pertsonen harremanetarako gaitasuna lantzea eta gurasoen laguntza-sarea indartzea
- Ohiturak, mugak eta arauak ezartzea zigorrik jarri gabe, eta arazoak konpontzen ikastea

Adin ezberdinetarako moduluak dauzka. Guk 3 eta 8 urte bitarteko haurrei dagokien modulua jarri dugu abian, eta prebentziozko esku-hartzea lehenetsi dugu. Programak 22-24 saio inguru dauzka, eta astean behin izaten dira.

Programa abian jartzen ari da Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Donostiako Udalaren lankidetzaren hitzarmen baten esparruan.

5. ERAKUNDEAK

6. GIZARTE LANGILEAREN LANA

Bigarren elkarrizketatua, Donostiako Gizarte Politika Departamentuko gizarte langile bat izan da, zehazki, sarrera ataleko gizarte langilea da.

Nahiz eta batzuk erdi mailako teknikariak izan eta ez gizarte langileak, bere atalean hainbat gizarte langilek hartzen dute parte: hiru gizarte langile daude, goi mailako teknikari bat kasu honetan psikologoa dena baita beste goi mailako teknikari bat haur tutelatuen herentziaz eta arduratzen dena, eta azkenik, hiru administratibo. Zerbitzu mailan, familia harrera eta adopzioako hiru gizarte langile daude eta egoitza harreran aldiz, bi.

Gizarte langileen lana, kasuak euren atalera iristean denak larriak direnez, legez denak hartu behar dituzte. Ez diote baimena eskatu behar familia horri esku hartzea egiteko, haiek notifikazioa iritsi zaiela ikusarazi eta informazio larria denez behartuta daude legez hori baieztatzeraz, eta jakiteko hori horrela den edo ez balorazio bat egin behar da. Eusko Jaurlaritzak eskainitako BALORA tresnarekin egiten dute lan, plantilla moduko bat bezala da eta hau balorazioa egiterako orduan erabili behar

dute. Honen ustez, tresna hau beharrezko ikusten zen ze lehen, ezer bilduta egon gabe oso larriak ziren kasuak bakoitzaren subjektibitatearen arabera onartzen ziren. Beharrezkoa ikusten zen gutxienez denak gauza berdinez hitz egitea baloratzeko orduan, eraginkorra den edo ez baino gehiago dio denok berdina ulertu ahal izateko balio izan duela, tipologia ze larritasun maila duen jakiteko.

Hala ere, gizarte langile honek hainbat hutsune ikusten ditu gaur egun babesgabezia dauden haur eta nerabeekin egiten den lanari. Hasteko dio, gaur egun jada haiek ez dutela esku hartze zuzenik egiten familiekin, hori HEZIAk egiten baitu (equipo zonal de infancia y adolescencia). Lan handia egiten da koordinazioan eta sarean, profesional asko daude inplikaturata eta orduan haien lana ikuspuntu jeneralizatuago bat edukitzea da, “guia” bezala jarduten dute, kasu bat sartzen denetik haien ataletik ateratzen den arte. Bestalde, neska-mutilek pertsona erreferente bat baina gehiago izaten dutenez zerbitzua eskaintzen zaienean, hor ere hutsune bat ikusten du euren garapen pertsonalera begira, berak egingo lukeena da urteetan zehar, ahal bada, erreferente berdina mantendu, haurrek konfiantza osoa eduki dezaten pertsona horrengan.

Gainera, Gipuzkoa guztirako 4 gizarte langile soilik daude: Donostialdea kudeatzeko gizarte langile bat dago; Irun eta Oarsoaldearako beste bat; Buruntzaldea, Donostialdea eta Goierrirako beste bat, eta Urola kosta, Debarrena eta Debagoienarako beste bat. Herri batzuetan kasu gutxi norifikatzen diren arren, beste batzuetan alderantziz da. HEZIAN teknikari bakoitzak aldi berean taldean 5-6 pertsona baldin badaude, bakoitzak aldi berean 20 kasu koordinazioan eta 3 balorazioan eraman behar dituzte, eta gainera, gizarte langilea kasu honetan erreferentea izango zen, “guia” hori. Beraz, esan daiteke aldi berean kasu asko ematen direla.

Elkarrizketatua lasai eta eroso zegoen, nahiz eta hutsune zein gabezia asko ikusi egiten den lanari, bere alde ona ere baduela dio. Hau da, berak baliabide gehiago eskatuko zituen hobeto funtzionatzera begira, adibidez, itxaron zerrendarik ez egoteko. Baina, bestalde dio, oso lan polita eta aldi berean ere gogorra dela emozionalki asko inplikatzeko joera izaten dutelako.

7. ERABILTZAILAREN PROFILA

Donostiako Gizarte Politika Departamentuko buruari elkarrizketa egin diogu eta bera haur eta nerabeen babeseke zerbitzuarekin lotuta dago, eta honi buruz hitz egingo dugu, lehenik eta behin esan beharra dago zerbitzu honetan lan ugari izaten dutela, eta ez daudela nahi adina jende lan hau egiteko.

Bertakoek diote baliabide gehiago behar dituztela, baino bai Donostian edo munduko beste herri batean, eta arazo handiena MENAk direla, hau da, Menores Extranjeros No Acompañados, hainbat

ume dituzte bakarrik etortzen direnak eta ez daukate beraiei eman diezaioketen lekurik, hau da, itxaron zerrendak daude, orduan kalean geratu beharko lukete. Departamentuko buruak dio bestalde, babesgabetasuna dagoela arlo guztietan, hau da, babesgabetasuna ez dijoa lotua ez klase sozialarekin, ez diruarekin... Berdin berdin ikusi daitekeela dio prekaritatean mugitzen den familia batengan edo Donostiako zentroan bizi den beste familia batengan. Gainera dio, udalarekin harreman handia dutela, jasotzen dituzten arazo guztiak udalak bidaliak dira, eta gizarte langilearen lana, arazo horiek kudeatzea da.

Elkarrizketatutako erabiltzailea nahiko frustratuta zegoen, berak esaten zuen bezala, ez daukate denontzako lekurik, itxaron zerrendak dituzte, eta azkenean inmigrante asko bakarrik egoten dira eta ez daukate harreman zabalik beraien familiarekin, orduan ez dakite nora joan eta kalean geratzen dira. Berak dio laguntza gehiago eman nahi duela, baina ez dakiela laguntza hori nola eman, jende asko dagoelako laguntza batzuen eske eta jende gutxi dago laguntza hori emateko.

8. E B A L U A K E T A

Lan honen bitartez, aukera eman digu Gipuzkoa mailan haurren eta nerabeen babes sistema nola egituratzen eta funtzionatzen duen ezagutzeko. Jarraian, aurretik aurkitutako gabezien ebaluaketa bat egingo dugu.

Lehenik eta behin, kontura gara programak eta planak behin haurrak eta nerabeak babesgabezia daudenean zentratzen direla. Hortaz, prebentzio programaren bat egiteari garrantzia handiagoa eman beharko zitzaioela uste dugu, egoera hau ekiditeko edota aurreikusteko. Kasu honetan, irakasleak gizarte langileekin harreman estua eduki behar dutela uste dugu haiek lan handia dutelako haurren egunerokotasunean. Haiek dira familiaz aparte hezten dituztenak eta etxean duten egoera identifikatzen lagundu dezaketenak haurraren emozioei erreparatuz nahiz eta zaila izan. Azken finean eskolako bizikidetzan islatu daiteke etxean duten egoera. Beraz, haiekin interakzioa edukitzea oso garrantzitsua da.

Bigarrenik, adopzioaren inguruan aipatu beharra dago, ikusi dugun hutsune bat soilik Gipuzkoako umeak adoptatu daitezkeela izan da. Hau da, ezin da ez Espainia mailan ez beste estaturen bateko umeekin. Ez da zilegia diskriminazioa hau egitea, estatu mailan egon daitezkeelako haur edo nerabe bat EAEko instalazioak erabiltzeko beharra duena eta bere etorkizuna hobetzeko baliagarria izan daitekeena

Hirugarrenik, planak eta programak egiterako garaian haur eta nerabeen artean ez da bereizketarik egiten. Biek jasaten dute babesgabezia hori eta eskubide berdina izan behar dute laguntza jasotzerako garaian baina esperientzia eta kontzientzia mailak ez dira berdinak izaten. Ezin duzu 5 urteko haur bat nerabe batekin elkarbizitzen jarri, autonomia ere ezberdina delako. Horretaz gain, egoera ezberdinengatik egongo dira babesgabezia egoeran eta hortaz, hori kontutan edukitzea funtsezkoa da. Beraz, kasu bakoitza aztertu behar da eta haur eta nerabeen ongizaterako irtenbide eta aukera posible egokienak bilatu.

Esan beharra dago Haur eta nerabeen babes sistema honetan ematen diren zerbitzuak nahiko osatuak direla orokorrean. Laguntza ekonomikoak ematen dira, hezkuntza-, familia eta gizarte-arloko zerbitzuak, egoitza harrerako zerbitzuak, adopzioen inguruko zerbitzuak...Nahiz eta zerbitzua egokiak eskaini, uste dugu laguntza ekonomikoak mugatuak direla, beste hainbat esparruetan gertatzen den bezala.

Bestalde, Gizarte Langilearen elkarriketan ikusi daitekeen bezala, haurrak eta nerabeak lista handi batean jartzen dituzte zentroetan edota familia adopzioarako. Hilabetez babesik gabe egon daitezke eta hau ez da zilegia adingabe batek jasateko.

9. G O M E N D I O A K

Lanean zehar bildutako informazioarekin hainbat hutsune eta behar ikusi ditugu haur eta nerabeen babesgabetasun arloan. Bertan jarriko ditu hauei aurre egiteko gure gomendioak:

Lehenik eta behin prebentzioari garrantzi handiago ematea. Hau da, kasuak egoera hain larrietara iristea ez uztea. Azken finean, esku-hartzen da, bai, baino umeak iadanik oso egoera txarretan aurkitzen direnean edo iadanik pasa dituztenean. Hau da, kasuen jarraikortasun bat izateko, guraso eta umeekin bilerak egitea. Baita ere, gerriko edo auzoetako eskoletan kontaktua eginda izatea hauek ere zerbait arraroa ikusten badute abisatu ahal izateko.

Erabiltzaileen parte-hartzea gehiago bultzatu behar dela uste dugu. Batez ere, nerabeen aldetik, zeren umeak txikiak dira eta ez dituzte gauza asko ulertuko. Baina nerabeak taldeak egin daitezke, beraien artean erlazionatu ahal izateko eta bakardade hori ekiditu ahal izateko. Azken finean, honelako egoeran aurrera ateratzea oso zaila da, oraindik gehiago adin horrekin, beraz, oso garrantzitsua da konturatzeko ez daudela bakarrik eta ez zaiola berari bakarrik gertatzen. Honela, beraien artean arazoaz

hitz egin dezakete eta aurre egiteko askoz errazagoa izan daiteke. Beraien artean babes-gune bat erakutsi dezakete eta laguntza, neurri batean, proportzionatu.

Aldatu beharreko beste gabezia bat, iruditu zitzaigun ez dutela bereizketarik egiten ume eta nerabeen artea. Hau da, programa edo planak ez daude adin tarteetara egokituak. Berdinak bai dira bi taldeentzat. Horregatik gure ustez, esku-hartze on bat aurrera eramateko beharrezkoa dela programa eta plan zehatzak sortzea adin tarte bakoitzerako.

Adopzioaren gaian, iruditzen zaigu ez dagoela batere ondo landuta gaia. Azken finean asko mugatzen da solik Gipuzkoakoak diren umeak adoptatu baldin badaitezke. Hau da, ezin dira Espaina mailan edo beste estatutako umerik adoptatu eta gure ustez aldatu beharra dagoen zerbait da.

Azkenik, laguntza ekonomikoaz gain beste zerbait eskaini ahal izatea. Hau da, tailer, ikastaro... eta honelako denbora libreko ekintzak eskaintzea. Honela jende gehiagorekin erlazionatzea lortuko dute eta. Azken finean oso garrantzitsua iruditzen zaigu, hauei atentzio handia eskaintzea, oso talde sensiblea bai da.

10. O N D O R I O A K

Lana burutu ahal izateko garatutako informazio bilketa eta elkarrizketak egin ondoren prest gaude ikusitakoaren inguruan hainbat ondorio ateratzeko. Hau da, egindako lan sakonaren ondorengo konklusioa emateko.

Ondorioak mahaigaineratu baina lehenago, beharrezkoa ikusten dugu lana egin baino lehenagoko hipotesiak gogoratzea. Aipatu genuen, babesgabezia dauden haurren egoerak gainditzeko modu eraginkor eta egoki batean esku-hartzeko arazoak daudela. Esan daiteke, hipotesia baieztatu genezakela, izan ere, gizarte langileari elkarrizketa egiterako momentuan esaten zigunaren arabera, zailtasun eta hutsuneak daude oraindik esku hartzea guztiz eraginkorra izateko, edo behintzat, haurrei behar zaien momentuan ematen zerbitzua. Jarri genuen beste hipotesietako bat ere baieztatu dugu, zehazki, udalekoek batzuetan haur eta nerabeak kalean utzi behar dituztela lo egiteko lekuetan edukitzeko itxaron zerrendak daudelako. Beste hainbat hipotesi ere jarri genituen, baina ezin izan ditugu frogatu errealitatean horrela direnik.

Gainera, kasu askotan gertatzen den moduan, aipatu gaur egun dagoen eskarira duten eskaintzarekin iristeko zailtasun handiak dituztela. Esate baterako, ezinezkoa dutela profil eta kasu guztien lanketa bat aurrera eraman denbora gutxian. Hau da, elkarrizketatutako gizarte langileak argi utzi zigun kasu askok hilabeteak pasatzen dituztela itxaroten behintzat erantzun minimo bat eduki artea, esku-hartze bat planteatzen hasi arte. Azken finean, eremu honetan lanean aurkitzen diren gizarte langile asko ez

daude ezta ere. Beraz, horrek lana oraindik konplexuagoa bilakatzen du. Gainera, diru laguntza eskasak dituztela aipatu zuen gizarte langileak, eremu honen kudeaketa eta lanketa buru ahal izateko. Hau da, eremu honetara iristen den dirua ez dela nahiko behar guztiak asetu ahal izateko.

Jarraitzeko, hainbat gabezia ikusi dizkiogunez Haur eta Nerabeen babesgabetasun eremuari, garrantzitsua iruditu zaigu errepikatzea behar duen garrantzia eman ahal izateko. Honela, argi utzi dezakegu aldatetarik beharrezkoak direla eta ahal den heinean eguneratzen joan behar direla. Badakigu, honi aurre egitea ez dela erraza baina soilik egoeraren hobekuntza bat bultzatu nahi dugu.

Argi dago, askotan umeek eta nerabeek jasan behar dituzten egoerak oso latzak direla. Behin babesgabetasun egoeran erorita, zerbitzuetara iristerakoan ez dute beraien lekua aurkitzen. Leku batetik bestera mugitzen dituzte eta harrera etxe ezberdinetan denbora gutxian ibiltzen dira. Honek, gure ustez, eragin handia du ume edo nerabearen ibilbide pertsonalean. Azken finean, beraien kasua askotan ez da behar bezala egiten, eta horrek oraindik eta arazo handiagoak sortu ditzazke egoera hori pairatzen ari den pertsona bati.

Baina egia da dena ez dela negatiboa, hau da, alderdi asko modu aproposan eramatzen dituzte aurrera. Adibidez, planak eta programak babesgabetasun egoera batean esku-hartu ahal izateko nahiko garatuak aurkitzen dira gaur egun. Baita gizarte zerbitzu espezializatuen antolakuntza, oso garrantzitsua dela arazo bat kudeatzeko garaian.

Azkenik, aipatu gai honen inguruan dagoen estigma eta kontzientzia maila lantzeko dagoela. Jende askok ez du batere informaziorik eremu honen egoera zein den gaur egun. Oraindik eta gutxiago kontzientziario bat arazo honekiko. Hau da, jendeak nahiko ahaztua duen zerbait da, ez dute ardurarik hartzen inguruan, edo ez behintzat modu egoki eta esanguratsuan.

11. BIBLIOGRAFIA

- Ballesté, I. R. (2007). Protección a la infancia en la legislación española: especial incidencia en los malos tratos (parte general). *Revista de Derecho de la UNED (RDUNED)*, (2). Hemendik hartua:
<http://e-spacio.uned.es/fez/eserv/bibliuned:RDUNED-2007-2-30020/Documento.pdf>
- Borrás Santisteban, T. (2014). Adolescencia: definición, vulnerabilidad y oportunidad. *Correo Científico Médico*, 18(1), 05-07.
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2019). Haurrak eta nerabeak babesik gabe. Helbidea:
<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gizartepolitika/kolektiboak/haurrak-eta-nerabeak-babesik-gabe>
- Gipuzkoako gizarte behatokia.
Helbidea: <http://www.behagi.eus/eu/adierazleak/adierazle-nagusiak/p-1/>
- Gipuzkoako gasun eta finantza departamentua (2015-2016). *Gipuzkoako ogasun eta finantza departamentuaren aurrekontua*. Donostian
- Stone, L. J., Church, J., & Bernstein, J. (1970). *Niñez y adolescencia*. Hormé.
- **Recoge los contenidos presentados a: Jornadas sobre adopción y acogimiento familiar** (1. 1988. Vitoria)

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_organos_ss/es_public/adjuntos/VII%20Informe%20CVBS%20%28definitivo%29.pdf

- UNICEF (2017). Haurren eta Nerabeen egoera Euskadin.
https://www.unicef.es/sites/unicef.es/files/comunicacion/Haurren_eta_Nerabeen_egoera_Euskadin_2017.pdf
- Zabalo Bilbao, Julen (2011): *Gizarte-Langintzarako sarrera, Euskal Herriko Unibertsitatea*.

https://www.euskadi.eus/web01-a2gizar/eu/contenidos/informacion/que_son_los_servicios_sociales/eu_def/index.shtm

12. ERANSKINAK

TRANSKRIPZIOA

1. ELKARRIZKETA

A → Elkarrizketatzailea

B → Elkarrizketatua

A: Bale ba ordun hasteko gizarte zerbitzuan funtzionamenduan inguruan ditugu e bost galdera, lenengoa izango zan, aber nola egituratzen dan en zerbitzua ?

B: Bueno gu gea haurren eta nerabeen babeseko zerbitzua, bale ? ordun gu gea Gipuzkoan kasu honetan Gipuzkoan gaudelako, Gipuzkoan haurren babesaren sistema espezializatuaz arduratzen garenok, e beste zerbitzu sozialetako beste arloetan, beste esparruetan gertatzen den bezala, arlo sektore hauetan gertatzen den bezala, ia guztietan, kasu honetan oso nabarmen, e arriskua osea, guk lan egiten dugu haurren babes gabetasunean ez ? Baina nolabait ere hori dago graduatuta, e arriskua babes gabetasuneko e arrisku arinak, eta arrisku erdia udalena da gehi prebentzioa gehi oi guztia bale ? Nolabait ere arriskuaren aurretik dagoenaren ardura, eta zerbitzu espezializatuak arduratzen gea babes gabetasunaz edo babes gabetasun arrisku larriaz, hori dago definituta, legean, en haurtzaroaren legean, eskumenatuetakoak daude or, eta hori da nolabait ere gure lana, hau da, arlo espezializatuei.

A: Bale, eta ordun e hurrengo galdera izango zan aber ea zenbat gizarte langile dauden departamentu

B: Hemen ?

A: Honetan lanean

B: Aber gu gea, gu ez gea asko, aber gu guztira gea 31 oker ez banago, gizarte langileak erdia, 16. Beste erdiak dira psikologoak, beste batzuk ni bezalakoak, bueno bakarra naiz, pedagogoa, eta gero administrariak, badaude ere bai abokatuak bi, behar da arlo, nolabait ere da, ikusten dezunez, zutaberik inportantena, gizarte langileak dira.

A: Ordun nahiko genuke jakin ere aber, beste zerbitzuekin nolako harremana dezuen edo B: Beste zerbitzuak zer dira ?

A: Em, ez genun asko zehaztu egia esan, ba beste zein zerbitzuekin daukazuen harremana edo

B: Aber, guk harremanak ditugu, aber hiru planotan bale ? Lenengo izango litzateke len aipatu dudan bezala udalekin, udalekin harreman handia daukau, azken finean ia kasu guztiak udaletatik datoz, eta behin ingresoa edo irteera gertatzen bada, udaletara bueltatzen dira, eta bitartean ere daude udalerrri batean, zer gertatzen da ? Gure zentro batean badaude, gure arduraren direla, ez udalarenak, baino, flujo guztiak udalek, e udalekin batera egin behar dira, eta ordun udalekin lan asko egiten dugu, ez agian behar genukeen guztia, baino lan asko egiten degu. Bigarren esparrua izango litzateke, gurekin zerikusirik duten beste sistemekin, sanidad, eee hezkuntza, justizia eta polizia, guk lan esparru oiekin en lan asko egiten degu, bai eskola eta sanidad nolabait ere guri notifikatzen digutelako, zeozer, ume baten edo famili batean zeoze ikusten dutenean, guri notifikatu behar dutelako, behar, gainera beharra dago, derrigorrezta badaude, eta gero justizia eta polizia, ba beraiekin ere lan asko egin behar degulako, koordinatuta egon ahal izateko, horretan esfortzua egiten degu, eta gero hirugarren esparrua, horrela koordinazio izango litzateke, hemen departamendu barruan ezgaitasunarekin eskurto sozialarekin, biolentzia matxistarekin eta egin behar degun lana, lan asko egiten da, hori, antolatuta, bueno baditugu gauzak e, oiek izango lirateke, guk koordinatuta egoteko ditugun hiru elementuak, gero beste koordinazio mota bat dago, eta da sistema, osea, gure sistema, guk zerbitzu espezializatuetan, gure kasuan Gipuzkoako diputazioan, ditugu ekipo eta eta entitate asko guretzako lanean, bai kontrato bidez, bai famili bidez, hori guztia, hori nolabaite, bateratu behar da, antolatu behar da, orientatu behar da, eta ebaluatu behar da, bale ? eta horretan, gure lana horretara doa, osea, azken finen, guretzako jende asko lana egiten du, jende askok, eta gure lana izaten da, horiei kalitatea bermatzea.

A: Bale, eta harremanekin jarraituz edo bai nahiko genuke jakin, ba aber e politikoeekin edo bai beste teknikari batzuekin aber nolako harremana edo edukiko zenuketen ?

B: Bai, em guk daukagu zuzendari bat, politiko bat da, baino esan nahi det, gure egitura guztian, emm ni funtzionario bat naiz, ni naiz nolabait ere politiko (eztula egiten du), departamentu honek, bost politiko ditu, diputatua, eta gero daude lau zuzendari, eta gure kasuan guk daukagu zuzendari bat dela, haurren babesaren eta gizarteratzerako, bi elementu horiek batera, gehi biolentzia matxista ere or barruan dago, politiko bakar bat, nik bai berarekin harreman estua dudala, baino beste guztiak askoz ere gutxiago, presente dago, bai neurri batean baina ez hainbesterako, ustet lana em funtzionarioen eskuan dagoela, teknikarien eskuan dagola hobeto esanda, ta lan tekniko bat dala, gainera haurren babesean, ee nolabait ere arlo politikoak gutxi du esateko.

A: Bale, ba ordun bigarren zatia izango zan, gizarte langilearen lanaz hitz egiteko edo gehien bat eta lenengo galdera izango zan aber zuk ze hutsune ikusten dizkiozun haur eta nerabeen babes gabekin egiten den lanai edo ?

B: Prestakuntzan ?

A: Bai

B: Ez, hutsunerik ez diot ikusten, osea gure problema bakarra da, aber honea jendea etortzen da, momentuak daude, batzuk plaza atera beste batzuk joan, bajak direla, jubilazioak hasi dira eta abar direla, eta honea iristen den jende berriak problema du, gutxi dakiela, aber gure tresna propioetaz gutxi dakiela, lan asko adibidez egiten da BALORA tresna aplikatzen ezdakit ezagutzen dezuen, BALORA tresna da eusko jaurlaritzaren defektu bat eta da, haurren babes gabetasun egoeren balorazioan aplikatu behar den tresna, bertan arautzen da eta hori ikastolan ikasi beharko dezute. BALORA aplikatu behar dute, eta ez dakite, dakite gutxi, esperientzia gutxi eta BALORA konplejua da, baina baloreak hasten da egiten, balorea ikasi behar da baino gero egiten, adibidez, guk aldaketa dexente izan ditugu plantillan azken

hilabete hauetan, azken urte hauetan, bajak izan direla, batzuk plaza atera dute eta beste batzuk bete egin dira, eta orduan interinoak eta etorri dira, datorren astean egin behar dugu ikastaro bat baloreak sakontzeko, zergatik iristen zaigun jendea adibidez balorean trebakuntza gutxi duelako, ordun definituta hortik dator, beste ez nuke beste defizitik esango ez zait okurrizten, gero hemen asko da esperientzia kanpoko eta hemen da asko eta asko bakoitzaren nortasuna, hemen haurren babesean eduki behar da nolabait ere nortasun propio bat, nortasun berezi bat, batzuk iristen dia honea eta handik gutxira ikusten duzu ez daudela komodo eta jun egin behar dia, gure kasuak oso gogorak dira, zuretzat ere osea batzuetan ikusten dituzu eta esaten duzu joe ze gogorak dira, gero gure kasuetan ere egoten da kanpoko presio bat, presio negatiboa, hau da, guk zerbitzu sozialetan gea etiofizio lana egiten dugun bakarrak, zuk behar baldinbazu zerbait, zu zoaz eta eskatzen duzu mendekotasunaren definizio bat, edo eskatzen dezu ezgaitasuneko plaza bat, guk ez guk alderantziz, deitzen ditugu familiak, deitzen diegu helduei eta esaten diegu beida hau eskatu dezula zure arloataz, eta ordun diferentzia horrek asko markatzen du gure lana, eta ordun nortasun berezi bat ere beharrezkoa da, oso jende maduroa, baina ez adina e heldutasuna, guk badaukagu jendea hemen, oso jende gaztea eta oso ona dana, eta alderantziz ere esperientziak izan ditugu, hartu behar da pasta berezi bat, hemen ezin du edonork egin e.

A: Nahiko genuke jakin ere aber zein motatako bazterketa jasaten dute erabiltzaileek edo em.. B: Azterketa ?

A: Bazterketa

B: Azterketa edo bazterketa ?

A: Bazterketa, bazterketa

B: Aber babesgabetasuna dago arlo guztietan, haurren babesgabetasuna ez dijoa lotuta ez klase sozialarekin, ez diruarekin, ez guk aipatu ditugu abuso sexual intrafamiliarak, hori ikusi dezakezu, ez dakit nola esan txabola batean, gaur egun txabolarik ez dago, baina nola ere prekaritatea mugitzen den familia batengan edo Donostiko zentro zentroan bizi den beste familia batengan. Gero badago puntu bat, osea esan nahi det, batez ere umeengan, ume bat baldin baukazu momentu honetan bizitzen zentro batean edo familia harrera batean, eta pentsa familia harrera batean zergatikan, badu puntu bat eskolan eta nolabait ere markatuta dago, babes sistemeko mutil edo neska bat da, eta horrek badu karga bat badu, alde batetik bere historia pertsonalak gure gana iritsi baino lenago, horrek eragina du bere nortasunean, bere kapazitatean, bere frakaso eskolarrean, baina aparte zentro batekoa izateak badu nolabait ere faktore negatibo bat eta hori nabaritzen da beregan, familingan ere bai.

A: Bale ordun, nahiko genizuke galdetu ere, aber nahikoak iruitzen zaizkizun eskeintzen dian zerbitzuak edo ?

B: Aber gu oso potenteak gea, gu oso zerbitzu potenteak ditugu, eta hala eta guztiz ere baditugu defizit batzuk, nahiko dira ?, aber gu gea. (Mobileran deitzen die), bueno lo dicho, bueno esan dizut e, problema batzuk, kapazitateko problema batzuk baditugu, programa batzuetan, zentro batzuetan ia plaza librerik ez dago, bueno plaza librerik ez dago ia denak kenduta, eta arazoak ditugu alde hortatikan.

A: Bale, eta zure ustez, komunikazioa eraginkorra da gizarte langile eta erabiltzaile batean artean, edo komunikazio egokia ematen da ?

B: Bueno, nik uste, hemen dauden gizarte langileak egokiak direla, nik ustet badakitela e harremanak ondo egiten, gero egia da agian faltan dituztela tresna konkretuago batzuk, badaude adibidez guk hemen izan ditugu, cursos de entrevista, hori medizinan asko erabiltzen den tresna bat da, hau da, nola egin entrebista bat helburu batera begira, ondo eta jendea motibatzeke, parte hartu behar dezu programa batean, hori adibidez, erabiltzen da asko tabakoaren prebentzioan, zergatik utzi behar dezute erretzeari ez?, ba hortarako badaude tresna bat eta nolabait ere metodologiak demostratu dutenak beraien ikasteak, eta hori egin degu eta agian jendea dator hori ikasi gabe eta ikasi beharko zun, ze azken finean bere gizarte langile baten tresna inportante bat da, motibatzea aurrean duen erabiltzailea, zu bazterkerian zaude eta jun behar dezu halako programa batea, halako zentro batera, adikzioak

dituzu, hori kentzeko, ulertzen ? hori guzti, entrebista motibazionala oso inportantea da eta egia esan jendea dator hori gabe, baino bueno, hori kenduta nik uste det honea iristen diren gizarte langileak nahiko ondo iristen direla, problematuta e, ni ez naiz kejatzen.

A: Bale, eta ordun zuk esango zenuke gizarte langileak egindako lanak lortzen dula erabiltzailean beharra asebetetzea ?

B: Asebetetzea gure kasuan ez da erabili daiteken hitz bat, osea esan dizut, guk de oficio lan egiten degu, guk familia bati deitzen diogu esaten diogu begira holako arazoak daude, hau igualatu egingo degu eta horren arabera ikusiko degu zer egin, gero umea etxean mantendu programa batekin eta abar eta abar, edo bestela umea etxetik aterata beharko degu, ulertuko dezue asebetetze kontzeptua gure kasuan ez dela egokiena, guk funtzionatzen dugu zerbitzu sozial sistema osotik aparte bat bezala.

A: Bale, ordun e zu gizarte politika departamentuko burua izanik edo, arlo honetan zuk badaukazue edo mantentzen dezue harremana erabiltzaileekin ?

B: Bai, gutxi e aber hemen, nei zeintzuk iristen zaizkit, em b asko kejatzen direnak, edo haserre daudenak auskalo zergatik eta hori, kexa modu pertsonalean planteatu nahi dutenak, eta horietakoak badaude, gero bestela niri iristen zaizkit kaso oso partikularrak, oso konkretuak eta abar, bestela gizarte langileek eramaten dituzte eta neregana ze iristen da, arazo bat dana, ulertzen ?, edo oso signifikatiboa dana, badaude kasu batzuk nolabait ere arazo konfliktiboak ez direnak, baino arazo bihurtzen direnak, yokese, adopzio batera zoaz eta gero juzgadoan esaten dizute eztaikit zer eta gauzak nahasten dira hemen, eta ordun bai sartu behar zarela, kasu horietan batzuetan bai izaten dezula harremanak gurasoekin edo harrera familiakin edo umeekin, baino umeak oso gutxi ikusten ditugu e, baino nik harreman gutxi daukat.

A: Bale, ordun hirugarren puntua izango zan ebaluaketa edo, osea kasuen ebaluaketa, ordun lenengo galdera izango zan aber nola ebaluatzen dian kasuak ?

B: Zuk bilatzen dezue balora bez euskaraz, balora tresnak eta ikusiko dezue agertuko zaizue interneten eta or daukazu, gainera balora tresnana hemen Euskal Herrian egindako tresna bat e herramienta bat da, ebaluatzeko ume baten egoera, hau da, ze tipologia duen eta ze

graduekin eta horren arabera nola egin eta hori momentu honetan estatuan nahiko zabalduta dago, comunidad autonomo askok kopiatu dute balora.

A: Ahalko zenuke esplikatu pixkat ze irizpideren baitan oinarrizten zeaten aber erabiltzaile bat onartzerako orduan ?

B: Bueno, guregana ia guztiak iristen dira udalaren bidez, udalak egin du bere azterketa, baloratu du ume edo familia horren egoera, aztertu du zer nolako faktoreak dauden, balora aplikatu du, udalak ere aplikatu behar du balora, eta guregana bidaltzen digute esanez, hemen daukagu umea hau eta bidaltzen digute balorazio txostena, bidaltzen digute baita ere balora tresna laburpena, osea dago excell bat, laburpen bat, eta bidaltzen dizkigute horren inguruan baldin badaude beste dokumentu batzuk bidaltzen dizkigute, adibidez, eskolaren txostena baldin badago, pediatriaren txostena baldin badago, ertzaintzak eztaikit zer egin duen eta horren txostena, eta gero familiaren paperak, DNI, familia liburua, eta hori gutxitan agertzen da, zer familiak ez du kolaboratzen bale ?, ordun hori guri bidaltzen digute, guk egiten degu, guk ez degu berriro or berreguardatzen, baizik eta ikusten degu udalak egindako ikerketa nolakoa izan den eta horren arabera osatu behar baldinbada osatu edo beste ia erabakiak hartu.

A: Bale, ordun puntu honetako azken galdera izango zan aber ze aurrerapen eman beharko zirela iruitze zaizu lana eraginkorragoa izateko

B: Gure problema handiena leno aipatu det, bat da dimensionamentuarena, hau da, guk beharko genituzke momentu honetan plaza gehiago, guk gipuzkoan, Araban, Bizkaian berdin zait, desbordatuta gaude geroz eta kasu gehiago daude, eta baliabideak ez dira neurri berdinenaz hazi, ordun arazoa da or erantzun kapazitateko problema bat daukagula, guk momentu honetan adibidez, itxaron zerrendak ditugu zenbait gauzetan, bi programetan eta hori inadmisiblea da, ze egon daiteke lista de espera ba.. residentzia batean sartzeko, ulertzen ? Hau residentzia bat da, hemen gainekoa, eta jendeak eskatzen du plaza bat eta egon daiteke hiru edo lau hilabetez itxoiten, agian gutxiago, hori dijoa mendekotasun graduaren arabera, baino guk ezin dugu horrela funtzionatu, ume bat baldin badago momentu honetan bere etxean egoera larrian, ume horri gaur eman behar diogu erantzuna, guk funtzionatzen degu, egunero eta ordu guztietan, guk dauzkagu urgentzietako baliabideak, gaur gauen sartu daiteke gure sisteman ume bat eta hortarako badaude prozedurak eta baliabideak eta dispositiboak, ordun kapaz izan behar degu horri erantzuteko, kapazitateko dimentsioak baldin baditugu hori ondo eta modu egokian egin ahal izateko, hori lenengoa, eta bigarrena bestea aipatu dugun bezala, zuk galdetu didazun bezala harremanetan dago, batez ere udalekin, zeren eta batzutan udalak bidaltzen dizu kasu bat, guk egiten degu horrela, ez degu azterketa bat egiten, baina behin ia horrela egiten dezula, bapatean joder zer gertatzen da hemen, e guk esaten diogu udalari, ba agian ez gaudela ados ordun bueltatzen digu, udala haserretzen da, eta batzuetan or sortzen dira disfuntzio horietan sortzen diren disfuntzio horietan arazoak ditugu, ez asko e, lan asko egiten degu beraiekin batera, beraiekin koordinatzeko eta abar.

A: Bale eta azkeneko zatia izango zan, ze eskatuko zenuke ordun hau dena esan eta gero, ba zure lana hobetzeko edo errazagoa izateko ? Eta bigarren galdera aber proposamenik edo badezun arazo horiek konpontzeko ?

B: Bat esan dizut leno, kapazidade gehiago, errecurso gehiago behar ditugu, eta hori toki guztietan eta bigarrena hemen ere plantilla gehiago, jende gehiago, gu gaude oso oso agobiatuta lanagatik, eta ez gera bakarrik e, guk harremanak dauzkagu beste Bizkaikoekin, Nafarroakoekin... eta berdin zait Malagakoekin eta Barzelonakoekin eta arazoa berdina da.

A: Ordun generalizaturik da arazoa ez ?

B: Bai, bai, egon dira azken urte hauetan, egon dira babes sisteman sartu diren elementu batzuk, lenengoa izango litzateke menena, menak, menores extranjeros no acompañados, ze gertatu da ? Pues iritsi direla, bueno badira urte asko iristen direla baino oaindela hamar urte egon zen gorakada baino gero krisi ekonomikoa zela eta jetsi zan dexente azken hiru urte hauetan egon da uholde bat, kalkulatu guk iaz jaso genitun 699, 699!!, osea 700, 700 horiei eman behar zaie erantzun bat, eztago, eztago hori egiterik, inork ezin du hori egin, arazo izugarria da, hori lenengoa, eta momentu horretan egoitz harrera guztiak 43 ditugu, zeharo beteta ditugu, eztaukagu ezta plaza bat ere, eta arazo bat dago, ordun horrek esan nahi du, gaur bertan iristen badira, eta gaur iritsiko dira edo bihar, sartu behar dituzula aber nun, nola, eta hori inadmisiblea da, eta bigarrena esaten dizut, hori izan da lenengo faktorea menak, eta bigarrena izan da, gizarte aldaketa bat eta da familia, guk lan egiten degu familiekin, leno familiak nolabait ere bazeukan beste sendotasun bat eta hori adibidez asko, eta momentu honetan, familia fragilizatzen aida, familia asko hautsita daude, familia askok ez du harreman asko kanpoan, familia zabala geroz eta txikiagoa da, eta hori guk nabaritzen degu asko atzerritarrengan, guk imigrazioaren presentzia oso handia daukagu gure sisteman, baino horrek ez du esan nahi inmigranteek beraien seme alabak maltratzen dituztenik, horrek esan nahi du, askotan sarerik ez dutela, familia batek arazoak baditu, izeba osabak, bizilagunak, amona aitona, or badago sare bat, nolabait ere zailtasun horiei aurrera egiten laguntzen duena, inmigranteek ez dute hori, inmigranteak oso bakarti egoten dira, ez dute familia zabalik eta askok ez dute inolako harremanik, ze gertatzen da arazo bat dagoenean, eta inkluso arazoa izan gabe zer gertatzen da ama batek bi seme alaba baldinbaditu eta ama horrek ostalaritzan lana egiten badu, pues ume horiek ordu asko egongo direla bakarrik, ume horiek ikasi beharko dute hasieratikan oso autonomo izaten, baino batzutan hori ez da nahiko, batzutan ez dute ikasten edo batzutan arazoak daude, era ordun pues imigrazioak presentzia oso handia dauka, eta nik ustet hortikan dijoaztela gauzak.

A: Ba berez oi izan da guztia

B: Bale

A: Zuk baukazu zeozer gehio esateko ?

B: Ez

A: Ba eskerrikasko!

B: Ez, zuri !

2. ELKARRIZKETA

-GZ funtzionamendua

-Nola egituratzen da zerbitzua?

Hiru atalek osatzen dute:

Sarrera ataleko GLa naiz, balorazioak egiten ditgu, eta larritasunaren arabera eta familiak kontzientzia edo laguntzeko prest baldin badago esku hartze batzuk proposatzen ditugu etxebizitzan bertan. Baina ez baldin badago hori eta arriskua goruntz baldin badijoa, haur horiek ongieza adierazten badute, batzuetan ez dago besterik eta orduan etxetik atera beharra dago. Guk hor neurri bat hartzen dugu, babes neurri bat, desanparoa deklaritzen dugu eta Foru Aldundiak tutoretza beregain hartzen du. Orduan, behin Foru Aldundiak tutoretza beregain hartuta, zaintza bai gauzatu behar du norbaitek. Zaintza gauzatzeko, bi atal daude: familia harrera eta adopzioa edo egoitza harrera. Egoitza harrerara bideratzen baditugu, pisu batean egongo dira eta beste atalaren menpe egongo da kasu hori; eta aldiz familia batera joateko aukera edukiko balu, familia harrerara bideratuko genuke eta kasuaren ardura atal horrek hartuko luke beregain.

-Zenbat gizarte langile daude departamentuan?

Batzuk erdi mailako teknikariak dira, ez dira konkretuki Gizarte Langileak. Baina gurean bai daude Gizarte Langile bezala Irati, Maialen, Karmele eta ni. Gero dago goi mailako teknikari bat, psikologoa dena. Gero daude hiru administratibo eta gero dago, Mikel, dala haur tutelatuen herentziaz etab arduratzen denaz, goi mailako teknikaria ere bai. Hau dena gure atalean.

Zerbitzu mailan, Itsaso “Familia harrera eta adopzioko” Gizarte Langilea da Nerea eta Lurdesekin batera. Egoitza harreran aldiz, Ainhoa eta Maria daude Gizarte Langile bezala.

-Beste zerbitzuekin nolako harremana du?

Gizarte Politika Departamentuan orain arte nahiko eskasa, bakoitzak bere aplikazioak dituen eta bere gauzak, konplikatu egiten zan eta batzutan ridukulua bezala ze guk etxeko bertako dokumentazioa lortu ahal izateko edo eskaerak bideratzeko edo beste Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jo behar izaten genuen. Orduan, konturatu ginenean horrek ez zuela zentzu handirik, geroz eta gehiago ari gara lantzen zerbitzu batzuek beste batzuekin prozedurak egiteko eta elkarlana pixka bat sustatzeko, protokoloak egiten gaude hori nola bideratu jakiteko. Adibidez, biolentzia matxistako kasuetan, haurrak baldin badaude beraiei ere interesatzen zaie arazoa lehen bailen guri pasatzea edo alderantziz, guk adibidez kasu bat gure zerbitzura iritxi denean eta diskapazidatea edo antzeko zerbitu antzematen badegu, bai ari gara hori flexibilizatzen pixkat dena egin ahal izateko modu integral batean.

-Tekinari, politikoeekin... zein harreman du?

Gure zerbitzu buruak du harreman gehiago eurekin guk baino, eta atal buruek. Gure atal burua adibidez Eneida Amas da, gero familia harrerako atal burua Josemari Le... da eta egoitza harrerako atal burua Yolanda Perez da. Beraiek bai egiten dituzte zerbitzuko bilerak eta gero Belenekin, dana gure zuzendaria dena, edo Maite Peñarekin dana gure diputatua, haiekin beraiek elkartzen dira. Ez bada familia batek kejarren bat jarri dula eta insistente dagoela eta diputatuari deitzen diola edo zuzendariari, kasu batzuetan bai eskatu digute gure beraiekin bertan bilera bat egitea, familia horiekin edo beste. Baina lanarekin zerikusia

48

daukana eta irizpideekin zerikusia daukana, hori zerbitzu buruek edo atal buruek zuzenean zuzendaritzarekin.

-GL lana:

-Zein hutsune ikusten dizkiozu haur eta nerabe babesgabeekin egiten duzun lanari? Nik hutsuneak gaur egun asko, zeren gaur egun guk jada ez dugu esku hartze zuzenik egiten familiekin, hori HEZIAK egiten du (equipo zonal de infancia y adolescencia), beraiek subkontrata bezela daude, bai daude denak oso espezializatuak eta oso formatuak daudela gai honetan. Baina, azkenean familiak baloratzen dituztenak zuzenean eta beraien erreferente direnak eurak dira, orduan guk hemen pixkat egiten

duguna da dena gainbegiratu, irizpideak ezarri, beaiek pixkat beraien enfokea jarri eta lana erraztu, eta gero bestela gu bakarrik familiekin egoten gara kexaren bat jartzen badute edo ez daudenean ados HEZIAren esku-hartzearekin... Orduan azkenean, gizarte lana dena hemendik ez da asko egiten, bai behar da ikuspuntu hori eduki eta dena oso presente eduki, baina harremana ez dago zuzena, beste modu batera da. Ez da Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan bezala, zuri familia bat datorriz, zu hor zaudela, zuk atenditzen duzu... Hemen beste modu baten eta gainera lan handia egiten da koordinazioan eta sarean, profesional asko inplikaturik, eta orduan gurea da pixkat ikuspuntu jeneralizatuago bat edukitzea eta gu gea pixkat "guia" bezela iten dugunak, kasu bat sartzen denetik gure ataletik ateratzen den arte.

-Zein motatako azterketa jasaten dute erabiltzaileek?

Hemen balorazio bat egiten da, dena baloratzen da. Zuri kasu bat iristen zaizu notifikazio bat egon delako, horren arabera, nola BALORA instrumentua dagon babesgabeziako tipologiak biltzeko, hor bai egiten dena da instrumentu hori oso kontuan eduki eta gero begiratzen dira area guztiak: lehenengo begiratzen da osasun mailan haur horiek nola dauden, istorio guztia, bikote harremana nolakoa den, guraso eta hurrekiko harremana nolakoa den, eskolako eremuan nola dabiltzan, ekonomia arloan nola... eta gero inzitzen da argumentatzen, tipologiak zeintzuk diren, eta gero arazoaren gaineko kontzientzia ea badagon eta aldatzko motibazioa badagon. Horrek asko markatzen du, hor baiezkoan baldin badaude gu bai saiatzen gara haurra ahal bada etxean mantentzea, gurasoekin mantentzea. Ezin deguna da guraso horiek ez badute ezer onartzen, ez badute guretz ezer jakin nahi, ez badute onartzen gauzak ez dijoaztenik ondo... Hor bai larritasuna buruz dijoa eta guk ezin duguna da sistema bezala haur horiek hor utzi, orduan hor, egoera larritzen denean bai egiten duguna da desanparoa deklaratu eta tutoretza guregain hartu.

-Nahikoak iruditzen al zaizkizu eskaintzen diren zerbitzuak?

Ahal izango balitz, neretzako dena da eskasa. Gauzak hobetze arren egin daitekeen guztia gutxi izango da beti, orduan gaur egun adibidez bai daude esku hartze programa oso bereziak eta oso onak baina itxaron zerrendekin gabiltza, HEZIAN ere itxaron zerrenda dago... Orduan niri ez zait iruditzen larritasun handiko kasuekin horrela jokatu beharko litzatekeenik. Baina bueno, hori badakizu, hemen presupuestoak eta hori politikoak erabakitzen dituzte, orduan ba gure zerbitzuei anpliatzen badiegu ba seguru medio gehiago edukiko ditugula, baina ez badute anpliatzen, daukagunarekin moldatzen gara. Bai saiatzen gara terapia psikologiko asko eskaintzen, programa espezializatu asko... Eta gainera irteerak egin behar direnean adibidez, ni kontziente naiz dirutza bat dela, haur baten plaza eguneko pisu batean, eta familia harreran daudenean, laguntza ekonomikoak ematen zaizkie... Saiatzen gara ahal den neurrian dena kubritzen baina bueno, neretzako behin ere ez da nahikoa izango. Zenbat eta gehio, hobe.

- Komunikazioa gizarte langile eta erabiltzailearen artean eraginkorra ahal da? 49

Eraginkorra da baina ez duzu begi bistatik galdu behar lan hau, aparte karga emozional handiko lana dela, baina zu jarri behar zara leku honetan: zu guraso batzuk ikustarazten ari zara, eta badakizu gauzak ez direla ondo egiten ari eta seme alabak sufritzen ari direla. Orduan nahiz eta zuk oso garbi adierazi eta modu xuabe batean beraiek ez mintzeko, askotan beraiek ezin dute hor onartu hori horrela denik. Orduan, zuri etortzea esaten gauzak ez direla ondo egiten ari zuk gehien maite duzuna mundu honetan zure seme alabak direnean, zailtasunak sortzen dira ikus ezin edo onartu ezin horretatik, ez hizkuntzaren aldetik.

- Esango zenuke Gizarte Langilearen lanak lortzen duela erabiltzailearen beharra asebetetzea?

Bai, hori dudarik gabe. Baina, batzuetan ez modu nahikoan. Hor faktore asko daude jokuan, batetik adibidez, nik zuri esaten badizut “joe nik badakit zenbat inporta zaizkizun zure haurrak baina ez dago ondo...” baina ikusten badet zu kontziente zarela nahiz eta hasieran ez onartu, preokupatzen zaitula eta zu ere prest zaudela... Hor gozada bat da ze hor oso lan polita egin daiteke, lan oso polita. Beste moduan jartzen bazara, isten bazara.. Azkenean denon kalterako da, haurrarentzako ere bai, gauzak geroz eta okerrerrago dijoazte eta haurra hortik atera behar baldin bada, ez da berdina ama bat haur horrekin aurretik joatea pisua ezagutzera, haurrari laguntzea trantsizio horretan, haurrak ez bizitzeko gaizki egoera hori... Horrek ez dauka zerikusirik eskola batetik haur bat atera behar izatearekin eta pisu batera eraman behar izatea, eta esplikazioak ondoren eman behar izatea... Orduan, kasuaren arabera.

-Ebaluaketa

-Ze irizpideren baitan oinarritzen zarete erabiltzaile bat onartzerako orduan? Guk denak hartu behar ditugu, honera iristen zaizkigun kasu danak larriak dira. Orduan guk ez diogu baimena eskatu behar familia horri esku hartzea egiteko, guk bakarrikan egiten duguna da ikusarazi notifikazioa iritsi zaigula, informazio larria duela eta orduan behartuta gaudela legez egoera hori baieztatzeraz, eta jakiteko hori horrela den edo ez den horrela, balorazio bat egin behar da. Nahiz eta familiak esan “ni pensar, no vais a entrar”, gero ikusten dute hori horrela dela, ze bestela epaitegira jo beharko zuten laguntza eske... Balorazioa egin behar da, bai, beste gauza bat da batzuetanseudokolaborazio bat egon dela familiarekin eta beste batzuetan konplot totala. Baina balorazioak beti egiten dira.

-Ze aurrerapen eman beharko zirela iruditzen zaizu lana eraginkorragoa izateko? Beraz, ze muga edota gabezia ikusten dizkiozu egiten den lanari?

Muga edo gabezia baino esango nuke... Hemen erreflexio handia egiten da, kasuen artean eta gauzak maiz aldatzen dira, oso dinamikoa bezela da dena, egoera bakoitzaren arabera. Bai iruditzen zaitena da pena bat, adibidez nola gu atalka gauden, hemen kasu batzuk iritsi zaizkizu bost urte ditula mutikoak, baina batzutan bai gertatu izan da 18 urte bete arte sisteman geratzea haur hori, gurasoak ez dutelako batere kontzientziarik, ez dutelako aldaketarik egiten, ez dutelako ezer jakin nahi... Hor pena bat da iruditzen zaitena da, hasiera batean lege neurria, babes neurria, hartu arte gu egotea. Orduan, mutiko horrentzako, neskabila edo dena delakoarentzako, erreferente zu zara. Ze pasatzen da? Behin jada babes neurria hartuta, zuk mutiko horri edo neskabila horri esan behar diozu “bai begira, ba aurrerantzean zure erreferente hau izango da edo beste hau...” eta segun, familia harrerara baldin badijoa edo egoitza harrerara. Orduan iruditzen zait pena bat dela sisteman urte asko pasatzen dituzten aurrek, azkenean ez dutela erreferente bakar bat eta hori oso garrantzitsua iruditzen zait. Beraiek azkenean pila bat dituzte: lehendabizi HEZIAkoa irteera egin zuena, gero egoitza harrerako hezitzailea edo bere tutore dena, gero lekuz aldatzen badute edo etxera itzultzen bada... Ez dakit, niri pena ematen didana da kasuaren kontinuitatea bai ematen da ze azkenean beti informazioa gordeta dago, orduan atal batean edo bestean dena argitzea dago. Pena iruditzen zait hori, mutikoei eta neskatilei begira, beraientzat askoz ere inportanteagoa izango zela familia batera juten direnean bezala, azkenean dala irteera bat egin zure etxetik baina ja beste familia batean integratzeko, baina azkenean hor heldua izan arte erreferente berdinak izango dituztela. Nik bai egingo nukeena da, hasiera batetik erreferenteak mantentzen, urteetan ahal bada.

- Zenbat kasu ematen dituzue batera?

Pila bat, pena Patxiri galdetu ez izana ze datuak berak manejatzen dituena. Zuk pentsa, Gipuzkoa guztirako gaudela 4 gizarte langile. Karmelek adibidez darama Donostialdea, Maialenek darama Irun eta Oarsoaldeako zona hori, eta nik daramat Buruntzaldea, Tolosaldea eta Goierri, eta Iratik darama Urola Kosta, Debabarrena, Debagoiena. Orduan azkenean, asko da, eta badaude herri batzuk oso gutxi notifikatzen dutenak baina beste batzuk kasu pila notifikatzen dituztenak. Orduan ez dakit zenbat esango nizuke. HEZIAN teknikari bakoitzak aldi berean, imajinatu: HEZIAko talde bakoitzean 5-6pertsonek daude, ba bakoitzak daramatza aldi berean 20 kasu koordinazioan eta 3 balorazioan, eta zu zera erreferente guzti horiena orduan, kasu asko dira.

- Gero ere Patxik esan zigu, pisuetan eta jada ez dela jende gehiago sartzen... Saiatzen gara familia harreretara bideratzen, baina pena izaten da familiak behar direla. Orduan klaro, kanpainak eta egiten ditugu maiz eta saiitzen gara. Baina gero adibidez, dago edade bat ja zaila dena familia batean... Zuk imajinatu, kaltetutako haur bat bere etxean egon baldin bada egoera jasan ezin batean 10-12 urtetan, zuk ja min hori duen haur hori nola sartuko duzu boluntarioa den familia batean, beraiek dakitenean arazo pila bat eramango ditugula, edo familia nahikorik ez dagoenean haur txikiak

beti, ez dijoaz zentrura, beti familiara zuzenean. Errealitateak erakusten diguna da norbait 10 urtetik gora zentru batean sartzen bada, nahiz eta guk orientatu familia harrera batera, oso zaila dela familia batera joatea.

-Gomendioa

-Gizarte Langile bezela, zer eskatuko zenuke zure lana hobetzeko edo errazteko? Nik eskatuko nukena da baliabideak hobeto funtzionatzea, ba adibidez hori, itxaron zerrendarik ez egotea. Niri gero kriston pena ematen dit eta gainera nik erantzun behar izaten ditut kexa horiek, eta orduan, zuk nola esplikatzen diozu familia bati bere kasua honera iritxi dela oso larria delako eta zuk hori helarazi diozu gainera, beraiek laguntza jasotzeko prest azaltzea eta laguntza hori ez iristea? Beraiek reklamatu behar izatea “aber, baina ez zenidaten esan nire kasua larria dala?”... “baibai, baina itxaron zerrenda dago...” orduan nik, pixka bat inbertituko nuke, dana dalakoa, denbora edo pentsatu beste nolabait, edo dirua, baino bai ezabatuko nituzke itxaron zerrendak.

- Zenbat denbora egoteia itxoiten?

Lehen adibidez ez genuen arazo hori, baina orain adibidez badaude kasu batzuk udara ezgero daudela eskuhartzea hasteko zain. Bai hango koordinatzaileak kontenitzen dituela familiak eta baina esku hartzea hasteko zain, kasu batzuk daude udara ez geroztik.

-Proposamenik al duzu arazoak konpontzeko?

Ni beti saiatzen naiz trasladatzen, orduan badakit eta gero nola hemen hainbeste foro dauden... Gero asteazkenero adibidez gure hiru atal buruak, zerbitzu buruak iten dute zuzendaritzako bilerak. Bilera hoietan daude ba igual 4 ordu edo dana dalakoa, eta ordun hor tratatzen dituzte beraiek guk trasladatutako gauza guzti hauek. Orduan azkenean, beraiek dira erabakitzen dutenak edo.

51

- Ba hau izan da dena, zan gehien bat jakiteko zuek hemen ze lan egiten deuen... Ba hori, hasieran balorazioa, familia harrera edo egoitza harrerara pasatzen dianian, kasu plana ajustatzen goaz, segun eta ze eboluzio izaten aidan... Baina hoi da, hoi iten degu guk, iten dute beste atalek eta pixka bat da koherentzia ematea kasuei.

- BALORA programa eraginkorra dela uste dezu?

Balora bai da oso konkretua. Bueno, funtzionatu baino eske badakizu ze pasatzen dan? BALORA oso beharrezkoa ikusten zan, ze lehen ezer bilduta egon gabe, klaro, zuretzako igual oso larria zan egoera

bat neretzako etzan.. Klaro, orduan hor zegon beti kontua. Igual ikusten zenun kasu bat zuretzako oso larria zana eta esaten zenun “baina nola mantendu dute hau udalean hainbeste urteetan?” klaro, gero hain kaltetua iristen zaigun kasua eta hain aldrebestuta, orain zenek egiten du zer hemen? Orduan, etzeon.. dena zan pixka bat kaosa. Ba hori, oso subjektiboa zalako, neretzako oso larria, klaro bestebatentzako hori ez zan larria... Bai ikusi zan beharrezkoa gutxinez denak gauza berdinetaz hitzeitea, ordun eraginkorra bai, ez..? ja hortan hainbeste enaiz sartzen baina bai izan dela zerbait denok berdina ulertu izateko. Hau gertatzen bada, edo hau ematen bada, eta egoera hontan ta hola, eta errepikatzen bada ez dakit zenbatetan... Ba ja gutxi gorabehera denok jakiteko ze larritasun maila daukan tipologiak.

- Eta zuk, adibidez, emozionalki hainbeste inplikatzeko ze itezu? Nola aldezu hori... Ba hori da zaila, hori da landu behar dena eta iruditzen zait karreratik landu behar dela. Ze azkenian, leku batzuk beste batzuk baino gehio baino, nik adibidez 18 urte daramatzat lanian, ordun ez da berdina udal mailan, udal mailan lan itezunian adibidez, igual presioa sentitzezu gehio ze astearte eta ostegunetan bilerak, gero txostenak egin behar ditut, gero tramitatu behar dituzu hogeimila gauza... Baina bueno, hor nola pixka bat denetik egokitzen zaizun, egun batzuk bai izango dia eta kasu batzuk bai asko ikutzen zaituenak eta loa pixkat kentzen dizutenak.. Baina eske klaro, hemen dena da oso gordina. Ze denak dira sexu abusuak, tratu txarrak, edo tratu txar emozionalak... Osa, oso kasu gordinak eta gorrak. Nik uste det azkenian sekula ez zeala guztiz ohitzen, eta hemen ratu txarrak pasatzen ditugu ba familiakin bildtzen zeanian edo oso gorra delako dena. Eta gero zuk ikusteituzu sufritzen, negarrez... Baina aldiberian bakizu, benga ba zuk indarra emateiozu esaten horri “aber aber, pentsatu hau umeengatik iten aizeala..” Ordun, bai pixkat estrategiak norberak alditunak... Gero, eske hoi, kasu danak ez dia berdinak eta ez, baino... Argi eduki behar da oso lanbide polita dala guria baino karga emozional handiko lana dela. Urte asko daramatzan jendeak, horregatik ematen dit askotan pena, ikustea erreta daudela.. Ze ezta nahikoa. Esan naet, guk inplikazio asko jartzen degu baina gero trabak: zentzurik gabeko gauzak egiteko, ez dago presupuestorik... Ordun, ezdakit nola esan, ba hor dago azkenian zailtasun handina edo gehien erretzen duna. Porque azkenian gero familiekin hartu eman bat dan ta nahizta gorra izan gero batzutan ze ondorio dazkan ikustian edo ze eboluzio izan dun... Bueno, zure satisfakzioak ere hor daukazu. Ordun, balantza baten bezela jartzeituzu, ta pixkat ekilibratu itea. Baina karga emozional handiko lana dala hoi argi eduki behar da.

